



Caritas
Bizkaia

Gizarte Ekintzarako Eredua

Bilboko Elizbarrutiko Caritas

2009



Gizarte Ekintzarako Eredua
2009

Argitalpena: Bizkaiko Caritas
Ribera k. 8, behea
48005-BILBAO (Bizkaia)
Tif.: 94 402 00 99 · Fax: 94 402 00 98
caritasbi@caritasbi.org · www.caritasbi.org

Imprimaketa: Gráficas Ingugom, S.A.

Itzulpena: Luis M^a Larruzea Murga (Euskara)

Lege-gordailua: BI-2831/09

ISBN:

“Gizarte-Ekintzarako Eredua” Eraikiz Bizkaiko Caritas

Aurkibidea

Sarrera	3
1 - Historia duen eta aurrera egiten jarraitu nahi duen “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz	5
2 - Oinarriak elikagai dituen “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz	9
3 - Barruan pobrezia eta bazterkeria dituen errealitateari begiratu nahi dion “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz	13
4 - Pobrezia berriei erantzuteko errealitateari adi dagoen “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz	25
5 - Gure elizbarrutian txertatutako “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz	31
6 - Aukerak eta ezaugarriak zehaztea eskatzen digun “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz	35
7 - Bibliografia	43

Sarrera

Caritasen, pertsonekin lan egiten dugu, beraiekin egiten dugun prozesuan laguntasuna emanez. Horrela, pertsonen sustapenaren alde lan egin nahi dugu, beraien duintasunean eta eskubideetan oinarrituta.

Hala ere, eskaerek gainezka egiten dutenean, gure zeregina baliabide materialak banatze hutsa bihurtzeko arriskua daukagu...

“Sarritan, praktika hauek ez dute ziurtatzen pertsona pobreaki zor zaion errespetua, gizarteratzeko prozesuak zailtzen dituzte, karitatearen edukia itxuraldatzen dute eta Elizaren karitate-jarduera bera desprestigiatu ahal dute...”

“Guk lantzen dugun Karitatea”

Ondo dakigu, baina nola jokatu beste ezertarako ahalbiderik ez daukagun uneetan?

Praktika desegoki batek ahaztarazi ahalko liguke pertsonekin tratatzen ari garela, ez direla erabiltzaile hutsak, gure senideak baizik, Jainkoaren seme-alaba maiteak.

Caritas Elizaren karitatezko ekintza da, Jainkoak gizadiari dion maitasunaren lekukotza emateko elkarte-ekimen bezala. Ondorioz, Caritaseko kide bakoitzaren berezkitasunak bat etorri behar du denon egiteko moduarekin.

Horregatik, eskuartean daukazun Gizarte-Ekintzarako Eredua ez da irakurketa hutserako sortu. Lagundu egin nahi digu pentsatzen, sentitzen eta jokatzeko, gure esku-hartzea Caritasen oinarrien eta aukeren adierazpena izan dadin.

Gizarte-Ekintzarako Ereduak galderak sorrarazi nahi dizkio Caritaseko kide bakoitzari, bera garatzen ari den jarduera zehatzari buruz. Erantzunak taldean eta komunitatean ere bilatzera gonbidatzen du. Dokumentuak ez du ematen, ezin du-eta, egoera bakoitzerako erantzuna, baina, taldeka arituta (PB, bikarioritza...), biziagotu egingo dira gure uste sendoak, bere behararekin etortzen zaigun pertsona bakoitzarengana hurbiltzeko.

«Dudan guztia behartsuen artean banatu eta neure gorputza erretzeraino emanik ere ,maitasunik ez badut, ez naiz ezer »

(1.a Kor. 13,3)

1 - Historia duen eta aurrera egiten jarraitu nahi duen “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz

2005-2006 ekitaldian, proiektu- eta programa-arduradunen taldeak beharrezkotzat jo zuen Bizkaiko Caritasentzat eskuhartze-eredu komuna definitzea, ezaugarri hauekin:

- Gizarte-eskuhartzean izan dugun esperientzia biltzen duena.
- Erronka berriak irekitzen dituen, pobrezia-errealitate berriei aurre egiteko.
- Caritasen identitateari eta oinarrizko aukerei erantzuten diena.

Aldi berean, hainbat talde gogoetan ari ziren esku hartzeko irizpideei buruz. Honek guztiak argi esaten zigun erakundearen parte handi batek Ekintza-Eredu baten beharra sentitzen zuela.

Eta, hortik aurrera abiatu zen gogoeta-prozesuan, Bizkaiko Caritaseko agenteek (kontratatuak eta boluntarioak) eta gure Elizako beste arlo batzuetakoek hartu zuten parte. Dokumentu hau gogoeta horretan txertatzen da, eta beste dokumentu batzuk ditu erreferentziatzen, gure erakundearentzat esanguratsuak direnak:

- Proiektu komuna. Bizkaiko Caritas, 1999.
- Nor gara? Gure identitatearen ezaugarri batzuk. Bizkaiko Caritas, 2000.
- 5 erronka, gero eta “Caritas” gehiago izan gaitezen. Bizkaia, 2001.
- Bizkaiko Caritasen 2006-2010ko Plan estrategikoa.
- Konfederazioaren “GIZARTE-EKINTZARAKO EREDUA”-ren lehen zirriborroa, 2008.

Bizkaiko Caritasek “Gizarte-Ekintzarako Eredua” gaiari buruz egindako gogoetak, Konfederazioaren Gizarte-Ekintzarako Ereduarekin batera (2009), lanabestzat hartuko ditugu gure Gizarte-Ekintzarako Eredua egiteko. Zeregin hau Bizkaiko Caritasen *Animazio Komunitarioa: Esku-Hartzeko Ereduaren* ¹ 2. lerroan jasotzen da

¹ Bizkaiko Caritasen 2008ko Organigrama, 2. lerroa: “Animazio Komunitarioa: Esku-Hartzeko Eredua.”

Gizarte-Ekintzarako Ereduaren funtsezko elementuak:

“Elizarentzat, karitatea ez da besteren baten ardurapean ere utzi ahalko litzatekeen asistentzia-jarduera mota bat. Bere izaerari dagokio eta bere esentziaren adierazpide utziezina da” (DCE 25) ².

Hala da, Elizaren eginkizuna Jesusek hasitako lanari jarraipena ematea baita, eta lan honen funtsezko osagaia pobrenei zerbitzua ematea da: *“Ikasbide eman dizuet, zuek ere, nik zuekin bezalaxe, joka dezazuen” ³.*

Beraz, Bizkaiko Caritas kristauen komunitatean oinarritutako erakundetzat daukagu. Komunitatea da Caritasen gizarte-ekintzaren argilea ⁴.

Caritas Konfederakundearen “GIZARTE-EKINTZARAKO EREDUA” lau oinarritan bermatzen da:

1. Ardatza pertsona da.
2. Motorea, maitasuna.
3. Eliza, zeinua.
4. Markoa, errealitatea.

Lau oinarri hauek une historiko aldakor batean zehazten dira, aldakortasun honek gizarteari eta gure Elizbarrutiko Elizari eragiten dielarik. Gure Elizak komunitate- eta misio-dimentsioak nabarmendu nahi ditu, eta Pastoralaren Birmoldaketa-prozesua bizi du. Caritas hortxe txertatzen da, Elizaren bihotzean bertan.

“Txabola batean zaudela edo jauregi batean bizi zarela, era desberdinean pentsatzen da eta irakurtzen da Ebanjelioa. Bizitzak, bertan dugun egoerak, gizartean betetzen dugun tokiak... horrek guztiak gure pentsatzeko moduan eragiten du, Ebanjelioa eta errealitatea irakurtzeko eran” ⁵.

Beraz, “GIZARTE-EKINTZARAKO EREDUAK” erreferentzia izan nahi du munduari, inguruari eta Elizari Jesusen MODUAN begiratzeko, eta modu hau Zorionbideetatik begiratzea baino ez da.

² Benedicto XVI.a. “Deus caritas est” Gutun-Entziklika, 25

³ Jn 13,15

⁴ Caritas: dokumentu honetan Caritas generikoki aipatzen dugunean, Bizkaiko Caritasez ari gara.

⁵ José M.^a Vigil (ed). *La opción por los pobres*. Sal Terrae. Presencia teológica 64. Santander 1991. p. 62.

2 - Oinarriak elikagai dituen “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz

“GIZARTE-EKINTZARAKO EREDUAK” gure EGITEAREN IZATEARI erantzun behar dio, eta, horrela, identitate-dokumentuaren eta gizarte-ekintzaren dokumentuaren arteko elkarrekintzan kokatzen da. Lanabes hau kontuan hartu behar dugu, erreferentzia bezala, gure plangintzetan, geure buruari zera galdetzeko: nondik abiatuta gauzatzen ditugu gure esku-hartze sozialak eta zein da gure motibazioen azken arrazoa? Kontraste-lanabesa izan behar du, geure esku-hartzea berari egokitzen joateko.

Helburu honekin bat, “GIZARTE-EKINTZARAKO EREDUA” gure JARDUNAREN eta EGINKIZUNEN IZATEA izango da.

Lau **gakok** lagunduko digute oinarria jartzen:

2.1. ARDATZA PERTSONA DA

Pertsonak gara, Jainkoaren seme-alabak eta, halakoak izanik, duintasun bera dagokigu denoi.

Gure egitearen ardatza pertsonak dira –persona bakoitza- eta, hauen artetik, pobretuenak, baztertuenak eta atentzio gutxien dutenak.

Pertsona bakoitzak, gizakia den aldetik, duintasuna dauka. Beharizanak ditu eta garatu beharreko potentzialtasun eta gaitasunak, baina ez du bakarka egiten, baizik eta gizartean, besteekin batera, doa prestatzen, hazten eta eraikitzen.

2.2. MOTOREA MAITASUNA DA

“Caritas”: termino honek Jainkoak pertsona bakoitzari dion maitasun desinteresatua adierazten du. “Berak maitatu gintuen lehenengo”⁶ eta modu desinteresatuan egin zuen. Doan jaso dugun maitasun hau gainerako pertsonari eman behar diegu, beraiek ere eman ahal izan dezaten. Zeren eta, maitasuna eman ahal izateko, maitatua izatearen esperientzia eduki behar da.

⁶ 1 Jn 4,10

Maitasun honek justiziaren alde lan egitera garamatza, azkenekoekin egotera, pertsona guztiok duintasun eta eskubide berberak eduki ditzagun.

Gizarte berria –Erreinua- eraikitzeko bidea beste pertsona batzuekin batera egiten dugu, giza-harremanak, harrera, hurbiltasuna eta laguntasuna asko zainduz.

2.3. ELIZA ZEINUA DA

Elizaren eginkizuna aldarrikapena, ospakizuna eta zerbitzua da. Caritas, Elizaren Misioaren osagai bezala, testigantzan zentratzen da: *Ebanjelioaren argitan bizitzea*.

Caritas kristau-komunitate konkretu batzuetan errotuta dago, eta bultzatu eta laguntzen ditu pobreenen aldeko eta bazterkeriaren aurkako konpromisoan.

Erreinua eraikitzen laguntzen dugun zeregin honetan, esku-hartzeko talde-sare zabala daukagu, eta bertan funtsezkoa da boluntarioen partaidetza: *“Boluntariotzak beste edozein errealitatek baino hobeto erakusten du Jainkoaren maitasunaren doakotasuna eta guztion ongia eraikitzeko bere konpromiso desinteresatua”*⁷.

2.4. MARKOA ERREALITATEA DA

Esku hartzeko, kontuan hartu behar dugu zein baldintza sozialetan aurkitzen garen: ongizatearen gizartearen erdian, eta Jainkoaren proiektuarekin talka egiten duen pobrezia- eta bazterkeria-errealitate baten aurrean. Errealitate honek “giza-hondarrak” ekoizten ditu, eta beraien egoeraren erruduntzat pertsona horiek berak jotzeaz gain, ongizatearen mehatxutzat hartzen ditu.

⁷ “Nor gara? Gure identitatearen ezaugarri batzuk. Bizkaiko Caritas”, 2000, p. 6.

3 - Barruan pobrezia eta bazterkeria dituen errealitateari begiratu nahi dion “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz

Bizkaiko Caritasen “GIZARTE-EKINTZARAKO EREDUA”, aldaketak eta kontrasteak etengabe bizi dituen gizarte batean txertatzen da. Kezkatu egiten gaituzte bertan etenik gabe sortzen diren ezberdintasunek. Gure mundua eta gizakia bera zaurituta daudela ikusten dugu. *“Asko izutu egin ziren berarekin, giza-itxurarik ez baitzuen, eta gizakia ematen ez baitzuen”*⁸.

Gizon egindako Jainkoaren begiekin ikusten dugu sufrimenduzko errealitate hau, eta begirada errukitsu eta baketsu hau urrikaldu egiten da eta pertsonarekin inplikatzeko da, konpromisoa hartuz eta errealitate pertsonala eta soziala bere gain hartuz, bizitza barrutik bizi izanez.

Errealitatea entzuteko deia sumatzen dugu, baita bertan dagoen Jainkoari entzuteko ere. Begiak zabaldu behar ditugu, bihotzetik entzun, gure zentzumenez sumatu zer gertatzen den maila sozial, politiko, erlijioso, ekonomiko, kultural, afektibo eta abarretan, eta, gero, aurkitutako egoera horiei utzi egin behar diegu gure barnera heltzen, ahotsa ipintzeko, iragartzeko eta salatzeke. Jainkoak, apurtutako mundu honetan profetak izan gaitezen deitzen gaitu, pertsonaren alde apustu egin dezagun, berarengan konfiantza izan dezagun; horrela, eguneroko kontu txikienetatik, senidetasun handiagoko mundua egiten joan gaitezen, bertan pertsona guztiok toki zabalagoa eduki dezagun.

Dei honek Jesusen eran inplikatzera gonbidatzen gaitu, gure munduan ezkutuan dagoenari eta erakargarria ez denari ere begiratzera, abian jartzera.

*“Sustrai berriak sortuko ditugu
landa eta bidexketatik,
erraietan fraternitatearen utopia
dakarten garaietan ibili ahal izan gaitezen”*⁹.

⁸ Is 52,14

⁹ J. A. Labordeta kantautorea

3.1. ERREALITATEA ULERTZEKO ZENBAIT GAKO

Pobreziaz hitz egitean, hau ulertzen dugu: pertsona eta komunitate jakin batzuek bizi dituzten egoerak, egitura-prozesuek sorraraziak, eta, bideratu ezik, bazterkeria eragiten dutenak. Hau da, pobrezia egoera konkretu bat da, eta bertan pertsonak gera gaitetzke harrapatuta; eta, bazterkeria prozesua da, denboran zehar irauten duten eragile askoren elkarrekintzaren ondorioz sortzen dena.

Munduak mugiarazi egiten gaitu eta bihotza hunkitzen digu; hortik abiatzen den gure begiradatik, bazterketa-prozesu hauetan bost eragile ikusten ditugu, funtsean:

Gabezia: *Hainbat pertsonak, familiak, komunitatek edo lurraldek ez daukate behar besteko baliabide eta ondasunik babes-, segurtasun- eta biziraupen-beharrak betetzeko.*

Gaixotasuna: *Hondatutako osasun fisiko, mental eta emozionalak modu erabakigarrian eragiten du bazterketa-prozesuetan. Gaixotasunaren eta bazterkeriaren arteko erlazioa noranzko bikoa da: erlazio hori konplexua da, eta, askotan, ez dago argi bazterkeria den narriadura eta gaixotasuna eragiten dituen, edo alderantziz. Beraz, gaixotasuna dimentsio pertsonal eta fisikoan hartzeaz gain, harreman-dimentsioan eta sozialean ere hartzen dugu, baita aspektu psikologiko eta emozionaletan ere.*

Bakartzea: *Laguntza-sareak apurtu egiten dira. Egoera hauetan, ezin dira bete partehartze-, harreman-, elkar-ulertzeko beharrak; zail egiten da partekatze eta erabakiak hartzeko lekuak edukitzea.*

Mendekotasuna: *Honelako egoeretan, pertsonak edo komunitateek ez daukate ahalbide eta baliabiderik bizitzari duintasun, askatasun, autonomia eta identitatez aurre egiteko. Mendekotasunaz ari garenean, "ez egitea" adierazi nahi dugu.*

"Zentzurik eza": *Pertsonaren gako existentziala afektatuta dago eta, hala, ezintasun-, etsipen- eta galera-sentimenduek tindatzen dituzte emozioak, subjektibotasuna eta dinamismo pertsonalak. Perspektibarik eza pertsonaz jabetzen da, eta honek ez du ezer edo ia ezer espero, ez etorkizunetik ezta inorengandik ere, dena berdin zaiolarik.*

Gainera, gizarte-bazterketa espazio ezberdinetan garatzen da: pertsonala, komunitarioa eta estrukturala. Horregatik, gure gizarte-ekintzak aipatutako hiru dimentsioetan eragin nahi du.

“Pobreziak, betikoak eta berriak, hiru hausturatan oinarritzen dira: subjektuaren eta bere dinamismo pertsonalen haustura (horren ondorioz, utzi egiten dio itxaropena izateari, maitatzeari, konfiantza izateari, besteak eta bere burua estimatzeari); askatasuna eta segurtasuna ematen duten harreman-sareak apurtzea; eta, bere seme-alabetako batzuk baztertu eta kaleratzen dituen antolamendu soziala haustea”¹⁰.

Gure erronka faktore negatiboak ekintzak bihurtzea da, babesetik abiatuko direnak eta, sustapenetik igarota, bazterketa-prozesuak jasaten dituzten pertsonen protagonismora helduko direnak.

3.2. BAZTERKERIAREN BOST ERAGILEAK

3.2.1. Ondasun- eta baliabide-gabezia

Hainbat pertsonak, familiak, komunitatek edo lurraldek ez daukate behar besteko baliabide eta ondasunik babes-, segurtasun- eta biziraupen-beharrak betetzeko.

Tradizionalki, pobretzat, EZ DAUKANA hartu izan dugu, pertsona, kolektiboa edo komunitatea. “Pertsona pobrea” itxuraz ere ezagutu ahal dugu, duintasunez bizitzeko ezinbestekoa dena ez baitauka.

Babesa sustatu nahi badugu gabeziak dauden tokian, hortxe egon behar dugu, presako gabeziak konpontzen saiatuz, eta oinarritzko beharrak betetzea bermatzen duen gizarte baten alde lan eginez.

Babesa ematearen alde lan egin nahi badugu, gabezia-egoeran daudenengandik hurbil egon behar dugu, muturretan dagoenari zabalik egon behar dugu, hurbil egon, ukitu eta ukitzen utzi. Azalera atera behar dugu “munduko mespretxatuen duintasun handia”, hitzez ematen ez dena sumatzeko gauza izan behar dugu, irabazi-asmorik gabe lan egin, txikia denaren erakargarritasuna sentitu, eta begietara so egitera ausartu.

“Pedro eta Joan begira gelditu zitzaizkion, eta Pedrok esan zion: “Begira guri”.

Hura adi adi jarri zitzaien, zerbait emango ziotelakoan. Orduan, Pedrok esan zion: “Ez dut ez urrerik, ez zilarrik, baina dudana emango

¹⁰ Joaquín García Roca. Relatos, metáforas y dilemas para transformar las exclusiones. Publicado en : VIDAL FERNÁNDEZ, Fernando (dir), V Informe FUEM de políticas sociales: La exclusión social y el estado de bienestar en España, Madrid: FUEM, 2006, pp. 9-27.

dizut: Jesukristo Nazaretarraren izenean, jaiki eta ibili!" Eta, eskuineko eskutik harturik, altzarazi egin zuen." ¹¹.

Pedrok elbarriari begiratzeak askatu eta altzarazi egiten du; elbarriak menpekotasun-sistema apurtzen du, zeren eta hortik aurrera ez baita eskean arituko tenpluaren ondoan. Joan eta Pedrok anaiatzat hartzen dute, berdintasun-mailan: "Jaiki eta ibili!".

3.2.2. Gaixotasuna

Hondatutako osasun fisiko, mental eta emozionalak modu erabakigarrian eragiten du bazterketa-prozesuetan. Gaixotasunaren eta bazterkeriaren arteko erlazioa noranzko bikoa da: erlazio hori konplexua da, eta, askotan, ez dago argi bazterkeria den narriadura eta gaixotasuna eragiten dituen, edo alderantziz. Beraz, gaixotasuna dimentsio pertsonal eta fisikoan hartzeaz gain, harreman-dimentsioan eta sozialean ere hartzen dugu, baita aspektu psikologiko eta emozionalean ere.

Lotura estua dute gaixotasunak eta bazterkeriak. Gaixotasun fisiko eta psikiko asko bizitzako zailtasun, gabezia eta kontsumo kaltegarrien ondorioz agertzen dira. Lan-arloan, maila ekonomikoan orohar, eta gizarte-babes eskaseko egoeretan, osasun-arazoak agertzeak pertsonen narriadura larria abiatzen du. Horrela, osasun fisikoak eta mentalak modu erabakigarrian baldintzatzen dituzte egoera pertsonala eta soziala. Aipamen berezia merezi dute osasun mentalari lotutako arazoek, zeren eta lotura are estuagoa baitute bazterketa-prozesuekin. Osasun mentalari oso lotuta, zenbait faktore identifikatu ahal ditugu, arlo pertsonalaren eta familiarraren erdibidean daudenak: afektu-faltari, segurtasun-faltari, autoestimurik ezari eta emozio-mendekotasunari lotutako guztia; azken batean, ongizatearekin eta bazterketa-barneratze prozesuetan duen eraginarekin lotutako guztia.

Argigarria da gaixorik hemezortzi urte zeramatzan emakume baten inguruko kontakizun ebanjelikoa. Izpiritu gaizto batek konkortuta utzi zuen ¹². Mugikortasunik gabeko emakumea da, bere errealtatean itxia, bere autoestimuan zapaldua, batez ere emakume-duintasunik ez duena. Bere errealtateatik kanpo, minak eta pobrezia abaildua.

Berri Ona Jesusen jokaeran ikusten dugu: emakumea ikusi, deitu eta gaixotasunetik libre utzi zuen, sendatu egin zuen. Jesusek horrelaxe

¹¹ Ap Eg 3,4-6

¹² Ikus Lk 13, 10-17

jokatzen du gabezia pertsonal, fisiko, sozialak... dauzkaten pertsonekin. Hurbildu eta deitu egiten die, ukitu eta hartzen ditu, harrera egiten die, jaikiarazten ditu, pertsona aske bihurtzen ditu.

Jesus bizitza ematera dator, bere hurbiltasun eta harrerarekin erakusten digu bidea norberaren inplikaziotik abiatuta egiten dela. Inplikaziorik gabe, ez dago sendatzerik.

Jesusen jokaeratik, beste xehetasun bat ikasi ahal dugu: askatasunetik sendatzen du, ez ditu menpean hartzen sendatzen dituen pertsonak. Jesusek osasuna itzultzen die, duintasuna, autoestimua, protagonismoa beraiei utziz. Ez du esker onik eskatzen, ez dirurik, ezta leialtasunik ere. Horrela, autonomia-prozesuak sorrarazten ditu.

3.2.3. Bakartzea

Laguntza-sareak apurtu egiten dira. Egoera hauetan, ezin dira bete partehartze-, harreman-, elkar-ulertzeko beharrak; zail egiten da partekatze eta erabakiak hartzeko lekuak edukitzea.

Baztertuta egotea ondasun-gabezia edo desberdintasuna ez ezik, bakartuta egotea ere bada, batez ere hori da, harreman-sarerik ez edukitzea, komunikatzeko eta parte hartzeko aukerarik ez izatea.

Emakume adulteriogileari buruzko testuan ¹³, garai hartako gizarteak kondenatutako emakumearen isolamendu eta bakartzearen aurrean, Jesusek samurtasunez begiratu eta hartu egiten du, lagundu, adoretu egiten du. *“Ez zaitu inork gaitzetsi?” Berak erantzun zion “inork ere ez, Jauna”. Jesusek esan zion: “ezta Nik ere, ez zaitut gaitzesten. Zoaz, eta hemendik aurrera ez egin bekaturik”* ¹⁴.

Jesusen jarrerak etorkizunerako atea zabaltzen du, eta norberaren erantzukizuna ahalbidetzen du. Gure gizarteak, batzuetan, leku estuan sartzen du jendea, eta oztopoak jartzen dizkio bere partehartzeari, bere hazkuntzari. Horregatik, garrantzitsua da harrera-guneak sortzea, beraietan pertsonak bere erabakiak hartu ahal izan ditzan. Jesusek neurrigabeko errespetua dio pertsonari, abiapuntutzat pertsona horren bizipenak hartzen ditu, eta hurbildu egiten zaio bakartuta geratzen denari.

Bakartzea dagoenean, protagonismoa sustatu nahi badugu, egoera horiek gertatzen diren lekuetan egon behar dugu. Gizarte-loturak

¹³ Ikusi Jn 8, 1-11

¹⁴ Jn 8, 10-11

hausten direnean, protagonismoa sustatu behar dugu, norberaren gaitasunetan konfiantza sorraraziz, motibazioa emanez, eta gizarte-loturak berreraikitzen lagunduz.

3.2.4. Mendekotasuna

Honelako egoeretan, pertsonak edo komunitateek ez daukate ahalbide eta baliabiderik bizitzari duintasun, askatasun, autonomia eta identitatez aurre egiteko. Mendekotasunaz ari garenean, “ez egitea” adierazi nahi dugu.

Markosen ¹⁵ 5, 40-43 testuari erreparatzen badiogu, Jairo etsipenezko eta muturreko egoeran hurbiltzen zaio Jesusi: bere alaba bakarra hiltzen ari da. Komunitatea tristatu egiten da, baina ez du ezer egiten; Jairok, ordea, bihotz-bihotzetik desiratzen du bere alabak bizitza berreskura dezan, eta nahi hori da itxaropenari atea zabaltzen diona. Jesusen bila abiatzen da.

Askotan, pertsonak eta erakundeak gelditu geratzen dira eta ez dute konplikaziorik nahi izaten. Hala ere, beharrezkoa da harremanak eta jokatzeko modua aldatzea. Hala nahi bada, Jesusek modu argian hartzen du esku: ate bat irekitzen da, arnasa berreskuratu eta bizitza itzultzen da.

Mendekotasun-egoeretan, **sustapena** bultzatu nahi badugu, egoera horietan egon behar dugu, pertsonaren autonomiaren eta garapenaren alde lan eginez, bizi-dinamismoak sendotuz, eta hazteko prestakuntza emanez eta lagunduz. Honetara, errespetuaren, entzuteko jarreraren, harreraren eta eroapenaren bidez heltzen da. Hauexek dira gakoetako batzuk, pertsonak humanoagoak izaten joan gaitezen.

3.2.5. “Zentzurik eza”

Pertsonaren gako existentziala afektatuta dago eta, hala, ezintasun-, etsipen- eta galera-sentimenduek tindatzen dituzte emozioak, subjektibotasuna eta dinamismo pertsonalak. Perspektibarik eza pertsonaz jabetzen da, eta honek ez du ezer edo ia ezer espero, ez etorkizunetik ezta inorengandik ere, dena berdin zaiolarik.

Zentzurik gabeko egoeretan, gizakiaren funtsezko dinamismoak apurtzen dira: konfiantza, autoestimua, elkarrekikotasuna, identitatea...

¹⁵ Ikusi Mk 5, 40-43

Egoera hauetan aurkitzen den pertsona etsipenean murgilduta bizi da, ez dauka erreferentzia-punturik.

Joaquín García Roca-ri ¹⁶ jarraiturik, zentzurik gabeko egoera hau naufragioarenaren antzekoa izan daiteke. Naufragoak erreferentzia-puntuak galtzen ditu, nahastu egiten zaio orientatzeko sena, ez daki non dagoen, leku batera edo bestera doan. Erabat etsita dagoen egoera honetan, hil ala bizikoa gertatzen zaio ohol-zati bati eutsi ahal izatea.

Itxaropena, borondatea, eta bizitzan helburuak edukitzea sustatu nahi badugu, zentzurik ezak eragindako pertsonari bere duintasuna aitortu behar diogu, zauritutako autoestimua onbideratu, eta etorkizun hobe batekiko itxaropena bizkortu. Hori guztia hurbileko laguntasun pertsonaletik abiatuta.

Argigarria izan ahal zaigu Markosen ¹⁷ ebanjelioan kontatzen zaigun odoljariodun emakumeari buruzko testua. Emakume honek urteak daramatza sufritzen, sufrimendu horri konponbiderik aurkitu ezinik, medikuz mediku bere ondasunak gastatu dituen arren. Pentsatzekoa da ezkortasunean eta etsipenean murgilduta biziko zela. Jesusekiko harreman hurbilak askatu egin zuen.

Beraz, argi eduki behar dugu pertsonari laguntasuna ematean, harreman horrek itxaropenean oinarrituta egon behar duela: gauzak bestelakoak izan daitezke, eta zerbait egin dezakegu alda daitezen. Topaketa pertsonalerako aukera eskaini behar diegu, pertsonak berez duen duintasuna berreskuratzetik abiatuta; horixe izan daiteke bere egoeran gero eta hondorago ez joateko “ohol-zatia”.

3.3. ZEIN EREMUTAN AGERTZEN DA GIZARTE-BAZTERKETA?

Mundu zauritu eta nahastu batean bizi gara, desberdintasun-egoera iraunkorrek daude, eta zail egiten dira konfiantza, partehartzea eta autonomia. Hain zuzen, zail egiten da pertsona libreago eta bere historiaren protagonista egiten duen guztia.

Giza-errealitateak eskaintzen digun zauri sakonagatik kezkatuta, adierazten dugu hau ez dela guk nahi dugun gizartea.

¹⁶ Joaquín García Roca. Relatos, metáforas y dilemas para transformar las exclusiones. Publicado en : VIDAL FERNÁNDEZ, Fernando (dir), V Informe FUEM de políticas sociales: La exclusión social y el estado de bienestar en España, Madrid: FUEM, 2006, pp. 9-27.

¹⁷ Ikusi Mk 5, 40-43

Horregatik, gure gizarte-ekintzaren eremua pertsonak dira, komunitateak eta egiturak, bai baztertutakoak bai gizartean txertatuak, bataren eta bestearen arteko muga zein den argi inoiz egoten ez delarik.

Pertsona baten aurrean gaudenean, bere gabezia eta potentzialtasunekin aurkitzen gara. Pertsona bakoitzaren barruan bere ahalmenak eta ahultasunak biltzen dira, bere historia pertsonala, inguruan dituen pertsonak eta beraiei egiten dien ekarpena, bere loturak, eta bera mugitzen den eremua. Geure ahultasunetik ere abiatzen gara: *“Nahikoa zaizu nire grazia, zeren eta indarra ahultasunean azaleratzen baita”*¹⁸.

Hau da, pertsona guztiok daukagu geure ondarea, gauza materialek eratua eta baita gure trebetasunetik ere, gure loturek, bizitzaren aurrean dauzkagun itxaropenek, mundua ikusteko geure ikuskerak eta bertan egoteko moduak, geure pentsaerak, geure maitatzeko moduak...

Era berean, komunitate edo egitura jakin bat aztertzen dugunean, zailtasunak ez ezik, komunitatean eta egituran bertan potentzialtasunak ere aurkitu ahal ditugu, eta beraietatik abia gaitzeko egoera hobetzeko.

Beraz, zailtasunak eta konponbiderako baliabideak pertsonarengan, komunitatean eta egituran aurkitzen ditugu. Eta espero dugu, gure lana egiten dugun bitartean, Jesus geure ondoan eta egoera ahuleneko pertsonen ondoan egon dadila. *“Eta jakizue ni zeuekin izango nauzuela egunero munduaren azkenera arte”*¹⁹.

3.3.1. Pertsona-eremua

Ekintzaren subjektua pertsona bera da. Pertsona bera da bere egoera hobetzeko lan egiten duena. Bere aldaketaren edo hobekuntzaren protagonista da. Gure ekintza laguntza ematera eta bere ondoan egotera bideratuta dago, berak egin ahal izan dezan, laguntza-harremanean oinarriturik, beti hurbiltasunetik.

Jesusek parte hartzen du eremu pertsonalean, bihotza ukituz. *“Horrexegatik diotsut barkatu egiten zaizkiola bere bekatu ugariak, maitasun handia erakutsi baitu”*²⁰. Lukasek maitale bikaina den emakumea erakusten digu. Gizonezkoak baino onartzen ez den janaldira sartu, garaiko arauak apurtu eta zigortua izateko arriskuari

¹⁸ 2 Kor 12,9

¹⁹ Mt 28,20

²⁰ Lk 7,47

egiten dio aurre. Jesusek utzi egiten dio bera maitatzen eta laztantzen. Doakotasuna da testu honen gakoa; bertan esaten zaigu nolakoak izan behar duten gure harremanek, nola hurbildu behar dugun. Jesusek, bere askatasunarekin, gizarteko arauak eta ezarritako ordena apurtzen ditu, eta baztertutakoak gizarteratzea aldarrikatzen du. Emakume hau laudatzeaz, prozesuak emaitzak baino garrantzitsuagoak direla adierazten digu.

3.3.2. Komunitate-eremua

Ekintzaren subjektua komunitate osoa da. Gure parte-hartzea inguruko zailtasunak ezagutaraztera bideratuko da, espazio horrek berak dituen potentzialtasunak azaleraztera eta berauek sustatzera eta garatzera, gizarte-sareak indartuz.

Jesusek parte hartzen du komunitate-eremuan, topo egiten du *Emausen dizipuluekin*²¹, bidean lagundu egiten die beraien etsipena eta itxaropenik eza aurpegiratu gabe, beraiengan komunitatera itzultzeko gogoia berpiztu arte: “*Gera zaitetz gurekin!*”.

Komunitatea esparru integratzailea da, indartu eta bultzatzen gaituena, sostengatu eta sendotzen duena, pertsona aurkitu eta baloratzen duena.

3.3.3. Egitura-eremua

Ekintzaren subjektua errealitatean dauden egiturak dira. Gure ekintza pobretutakoen eskubideak babesteko lanetan parte hartzera bideratzen da, eskubide hauek urratzen dituzten egoerak salatzera, errealitate hauei erantzuteko orientabidea proposatzera, eta behar diren aldaketak abian jartzen laguntzera. Zeregin hauen jomuga erakunde publikoak eta instituzionalizatu gabeko erabaki-esparruak dira.

Eremu honetan, gure lana komunitate-dinamismoak aktibatzea da, gizartean lo dagoena esnaraztea, eta protagonismoa eta potentzialtasunak horietaz gabetuta daudenei itzultzen joatea.

Lukasen 4, 14-21 testuak geure munduko egituretatik abiatuta lan egitera deitzen gaitu. Jesusek Eskritura irakurtzen du: Isaiasen testuak,

²¹ Lk 24, 13-35.

aldarrikatzera etorri den Erreinuaren edukia erakusten du. Azaltzen diren giza-egoerak (pobrezia, gatibutasuna, itsutasuna, zapalkuntza ²²) heriotza-adierazpide bezala agertzen dira. Hau da funtsezko baieztapena: “pobreei Berri Ona ematea” (18. b.), beraiek baitira bizitzeko behar dena ez daukatenak. Pobreei askatasuna iragartzen zaie. Hau da Jesusek iragarri eta salatzen duena: *“giza-azpiegitura (ura, ogia, jantziak...) hain garrantzitsua denez, Jainkoak salbamera eta hondamendia azpiegitura hori era bidezkoan eta senidetasunezkoan erabiltzearekin lotu zituen”* ²³.

Esku hartzeko hiru eremu bereizten ditugun arren, errealitate sozial berberaz ari gara. Prozesu sozialek elkarri eragiten diote hiruretan. Horrexegatik, gure esku-hartzeak, pertsonekin beraiekin funtsezko harremana sortzeaz gain, indar bereko lana eskatzen du komunitate-eta egitura-eremuetan.

Beraz, gure ekintzak gizarte-aldaketa dimentsio guztietatik sustatzen du, erdigunean pertsona eta bere gizarte-testuingurua jarriarik.

²² Kf. 18. berseta.

²³ Ikus Mt 25, 31-46

4 - Pobrezia berriei erantzuteko, errealitateari adi dagoen “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz

4.1. GLOBALIZAZIOA

Azken urteetan, elkarri eragiten dioten hainbat arrazoik, **GLOBALIZAZIOA** sorrarazten dutenek, aldaketa garrantzitsua eragin dute munduan. Era errazean adierazita, globalizazioa **hiru aspektu** bateratzean gertatzen da: ekonomikoa, sozio-politikoa eta kulturala:

Ekonomikoa

Aztergai dugun prozesuan, tokiko merkatuak nazioartera zabaldu dira eta teknologia berriak garatu dira. Mugimendu ekonomiko gehiena gutxiren esku dago eta, horrela, areagotu egiten da ekonomia indibidualen hauskortasuna eta estatuen kanpo-zorren hazkundea. Aldaketa garrantzitsuak gertatzen dira ekoizpen-ereduetan, lan-harremanen desarautzea errazten dutenak; eta, egitura-langabezia hazi egiten da, baita lanaren behin-behinekotasuna ere, eskaintza eta eskariaren arteko desorekagatik. Prozesu honetako beste elementu garrantzitsu bat sektore publikoa pribatizatzea da, eta, horren ondorioz, biztanleriaren funtsezko sektoreak askotan zerbitzuetarako sarbide egokirik gabe geratzen dira.

Soziopolitikoa

Politika-mailan, nazio-estatuak protagonismoa galtzen dute, merkatua politikatik askatzen da, irabaziak pribatizatzen dira eta sektore publikoaren galerak sozializatzen dira. Mekanismo demokratikoetan ere galera garrantzitsua gertatzen da, eta honek nabarmenki hondatzen ditu parte hartzeko sistemak.

Kulturala

Maila honetan ere aldaketak gertatzen dira eta galdu egiten dira kultura-erreferente tradizionalak; globalizazioak berekin berehalakoaren kultura dakar: proiektuak, bai pertsonalak bai kolektiboak, hauskorrago bilakatzen dira. Balio handiagoa ematen zaio pribatuari, publikoaren

kaltetan; indibidualismoa areagotu egiten da, eta, ondorioz, asoziazionismo-mailak gero eta baxuagoak dira. Sistema “neoliberal” berri honen ardatza, arlo ekonomikoa (dirua) sozialaren (pertsona) aurretik jartzea da.

EMPren zuzendariak (**Elikagaien Munduko Programa, Nazio Batuak**), Josette Sheeran-ek, duela gutxi esan duenez ²⁴, 1.020 milioi pertsona gosea jasaten ari dira. “Inoiz baino goseti gehiago dauzkagu”, adierazi zuen Sheeran-ek, eta nabarmendu zuen “munduan pertsona askok, esnatzen direnean, ez daukatela ezta katilukada bat janari ere”.

NBEko erakunde humanitarioaren arduradunaren iritziz, egoera hori “hondamendirako errezeta” da, eta “kritikoa da munduko leku askotako bake, segurtasun eta egonkortasunerako”.

Pertsona askoren zaurgarritasuna, azaldu zuen Sheeran-ek, larriagotu egin da “batera gertatu eta kolpatzen ari diren bi ekaitzengatik”: nazioarteko finantza-krisia eta elikagaien garestitzea.

EMPren zuzendariak azpimarratu zuenez, finantza-sistema globala salbatzeko gobernuek egindako injekzio ekonomikoen “ehuneko bat baino gutxiagorekin”, konpondu ahalko litzateke gosea jasaten ari diren milioika pertsonaren egoera tamalgarria.

4.1.1. Migrazioak globalizazioaren testuinguruan

Migrazioak beti izan dira, baina orain berria dena da nazioarteko komunitatearen arreta-fokuetako bat dela; eta, batez ere herrialde aberatsetan, gero eta era nabarmenagoan sumatzen ari da, faltsuki bada ere, hau “gizateriaren arazo globaletako bat” dela. Inmigrazioak gure inguruan erakusten dituen ezaugarri negatiboek pertsonak zaurgarritasuneko eta gizarte-bazterketako egoeretara eraman ahal dituzte, eta, errealitatean, hala gertatzen ari da.

Hala ere, nabarmendu behar dugu, mundializazio-prozesuen ondorioz, estrategia berriak sortu direla, prozesu globalizatzaileetatik aukera eta ondorio positiboak aterarazi nahi dituztenak: **“bestelako mundua eraiki daiteke”**.

²⁴ 2009ko Iraila.

4.1.2. Ondorioak

Nazioarteko egoerari begiratzen badiogu, nabarmen agertuko zaizkigu ondorio negatiboak, desberdintasunak areagotzen ari direnak. Adibidez:

- 1960an, diru-sarreren desberdintasuna, munduko biztanleriaren alderdi aberatsenaren eta pobreenaren artean, 30/1 proportziokoa zen. 1997an, 74/1ekoa.
- XX. mendearen azken 4 urteetan, berrehun pertsona aberatsenek bikoiztu egin zuten beren aberastasuna.
- 10 enpresa boteretsuenek, sektore ekonomiko errentagarrienei buruz ari garelarik, munduko merkatuaren ia %80 kontrolatzen dute.
- Ikerkuntzan eta garapenean inbertitzen den %84, 10 herrialderi baino ez dagokie.

Gure inguruan ere, errealtate berrien aurrean aurkitzen gara:

- Adierazle makroekonomikoak onak izan diren arren, pobrezia-muga azpitik bizi diren familia- eta pertsona-portzentajea ez da aldatu azken hamarkadan.
- “Pobrezia berriak” agertzen dira: eragina handiagoa da emakumeen eta gazteen artean.
- Pobrezia jada ezin da ulertu faktore isolatuak hartuta. Hainbat elementuren interakzioaren ondorioz, pobrezia-egoerak sortzen ari dira.
- Hazi egin da eremu lokalean esku hartzen duen sare- asoziazionismoa, eta baita eremu globalekoa ere, nolabaiteko errebindikazio-mailarekin.
- Boluntariotzaren eta parte-hartze zibilaren krisia. Asoziazionismoaren hazkuntza, batez ere, sistema publikoarekin hitzartutako zerbitzuen eskaintzan islatzen da.
- Fenomeno migratzaileaz komunikabideek egiten duten trataerak eragin handia du “inbasio” bezala uler dadin.
- Hasi gara sumatzen enpresen deslokalizazioak lan-merkatuan duen eragina: itxierak, lan-mugikortasuna...
- Kontsumo-kulturaren garaian bizi gara, eta honek ere eragina du bazterketa- eta pobrezia-egoeran dauden pertsonengan. Integrazioa kontsumo-kodean ulertzen da.

- Aldaketak elkarbizitza-ereduetan: gurasobakarreko familiak, buru normalean emakumea delarik (fenomeno honek, emakumea lan-mundura sartzearekin batera, “pobreziaren feminizazioa” eragin du); pertsona bakarreko familiak, normalean oso pertsona zaharrak izaten direlarik; hainbat familia-nukleo etxebizitza berean, etab.

Pobrezia ulertzeko funtsezko elementua lanik eza da. Estatuak lan-baldintzak gutxiago kontrolatzeak eta merkatuaren aseizintasanak segurtasun-faltan eta arriskuan jartzen dituzte pertsona gehienak. Gizarte-ereduan sortutako ondorioak hainbeste eta hain sakonak izan dira, ezen aldatu egin baitira ongizate-gizarteak oinarri zituen zutabe gehienak.

4.2. GEURE BEGIRADA CARITAS ERAKUNDEARI

Sortu zenetik, Caritasen misioa izan da Bizkaiko Elizaren konpromiso sozio-karitatezkoa errealtate bihurtzea, garaian garaiko baldintza sozio-politikoei eta elizakoei erreparatuta. Azken urteetan, parte hartzean oinarritutako hainbat prozesu bultzatu dira identitatearen inguruan, elizbarrutiko proiektu komuna eraikitzeari buruz, eta erakundeak dituen erronken gainean.

Berrirori kokatu behar ditugu gure esku-hartzea eta gure erakunde-eredua errealtate sozialean eta elizarenean, gure oinarriekin eta funtzioekin koherenteak izan behar dutelarik.

Gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren eredu berria sortzen ari da, eta Caritasek bere tokia aurkitu behar du, Elizaren presentzia sozialaren erakusgarri.

Karitatearen dimentsioa gure Elizaren funtsezko zutabea da; eta, honek Caritasen eragile nagusia bihurtzen du kristauen komunitatea. Horregatik, berrantolatu egiten gara, komunitateak pobretutako pertsonetikiko justizia sozialaren alde duen konpromiso hau sendotzeko.

Horregatik guztiagatik hau esan dezakegu: *“Bizkaiko Caritas, bihotza berrituta, maitasunaren eta justiziaren lekukoek osatutako komunitatea eraikitzeko bidean da”*²⁵.

²⁵ Comunidad de Testigos en el amor y la justicia. Cáritas Bizkaia con un corazón renovado, 2008.

5 - Gure elizbarrutian txertatutako “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz

Bizkaiko gure Eliza saiatu egin da oraingo egoera sozio-erlijiosoaz kontziente izaten, eta barruan dituen aukerak eta ahulguneak aztertzen. Kanpora eta gure barrura egiten dugun begirada honek, Eliza moduan, bultzatu egiten gaitu axolagabe ez izatera, mugitzera; ekintzara bultzatzen gaitu. Horrela, Elizbarrutiko Batzarretik (1984-1987), batez ere Elizbarrutiko ebanjelizazioko planetan islatu da Eliza bezala azaleratzen doazkigun erronkei heltzeko ardura. Plan horietan, honako hauek landu dira: lehenengo, pobretutako pertsonen aldeko konpromisoa; bigarren, eliza-subjektua berritzea; eta, azkenik, fedearen transmisioa, oraingo testuinguru sozio-erlijiosoan.

Azken hamarkada honetan, Elizbarrutiak pastoraltzako eraberritze-prozesua jarri du abian, antolakuntza-aldaketa soila izan nahi ez duena; eta, planteatzen dituen erronkek zerikusia dute Elizaren misioarekin berarekin eta gaurko gizarteak gertakari erlijiosoaz duen ikuskerarekin. Abiapuntua funtsezkoa da Bizkaiko Elizarentzat eta Eliza Unibertsalarentzat: misio ebanjelizatzailea (aldarrikapen, ospakizun eta zerbitzu bezala ulertuta) gauzatzeko, Eliza berritu egin behar da *“pertsonen mailan, pastoraltzako instantzietan, eta gaurko munduan kokatzeko moduan”*²⁶. Beraz, Elizaren identitateari berari fidel irauteko erronkaz ari gara.

Argia da Eliza komunitario eta erantzukide baten aldeko apustua, ebanjelizazioa misiotzat duena. Ikuspegi honetatik, garrantzi bera dute eliza-subjektu ezberdinek: laikoek, erlijiosoek eta apaizek. Abiapuntu bezala, bataiatutako pertsona guztiei aitortzen zaie subjektu ebanjelizatzailearen izaera, lekukotza pertsonalak duen indar ebanjelizatzailean oinarrituta.

Eliza ulertzeko modu honek bere argi-ilunak ditu gauzatu nahi izaterakoan:

²⁶ “Nola jaio daiteke norbait jadanik zaharra izanik? (Jn 3-4). Elizbarrutiko pastoral zerbitzuaren eraberritzeaz”, 2000.

ARGIGUNEAK

Alde positiboan jarri ahal dugu laikoak eta erlijiosoak hasi direla pastoraltzako hainbat arloren azken ardura hartzen; laikoek ministerio-taldeetan parte hartzen dutela; laikoen prestakuntzaren aldeko apustua; parrokiako kontseilu erantzukideak sortu direla; komunitate asko beren karisma biziberritzeko egiten ari diren ahalegina, beraien egoera larriaren barruan (zahartzea, bokazio-falta...); komunitate lokal bakoitzaren ezaugarrien errespetutik abiatuta, batasunaren bila elkartzen doazen parrokien esperientzia; hainbat eremutan gure elizbarrutiak duen erakunde-aberastasuna: irakaskuntzan, komunikazioan, pastoraltzako eragileen prestakuntzan, kulturean, gizarte-bazterketan; eta, Eliza lokalaren eginkizun ebanjelizatzailearen inguruko erantzukidetasunaz dagoen sentikortasun orokorra. Nabarmendu behar da, aukera bezala, hainbat pertsona sinestun daudela, erlijio existentzialagoa bizi eta errebendikatzen dutenak; beraiantzat, fedearen funtsezko elementuak dira espiritualitatea eta komunitariotasuna: Elizaren eta bere misioaren nolabaiteko biziberritzea adierazten duten hainbat mugimendu eta komunitate txiki finkatzen ari dira.

ILUNGUNEAK

Jakina, itzalak ere badaude, eta Elizak berak aitortzen ditu: laikoen ministerio-gaitasuna, praktikan, ez dago behar bezain balioetsita, eta laikoen asoziazionismoa ahula da; ahaleginak koordinatu behar dira partekatutako proiektu batean; badago pastoraltzako estilo bat, inertziak eramana; apaiz batzuk ez datoz bat erantzukidetasunarekin, eta komunitate batzuk ezbaian dabilta planteamendu berrien aurrean; apaizen zerbitzua jarduera kultural eta sakramentaletara murrizteko arriskua dago. Horren guztiaren ondorioz, ebanjelizazioaren zama handi bat apaizen esku geratzen da, hauek zahartzen eta urritzen doazelarik. Karisma, eliza-subjektu eta elizbarrutiko erakunde guztiak partekatutako guneak bilatu behar dira, erantzukidetasunetik abiatuta, animazioan, laguntasunean, lekukotasunean, ospakizunean, aldarrikapenean eta zerbitzuan oinarritutako ebanjelizazioaren alde lan egin dezaten.

Argigune eta ilungune hauek ikusten ditugun testuinguru sozio-erlijiosoan, sozialki indartsuena den biztanleria-zatia (30-60 urte bitarteko pertsonak) ia erabat Elizatik kanpo bizi da. Gainera, helduaroan, Elizarekiko konpromisoari dagokionez, askoz gutxiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino, funtsean hauek izanik komunitateari eusten diotenak. Nabaria da soziologikoki gehiengo osatzen duten kristauak

6 - Aukerak eta ezaugarriak zehaztea eskatzen dugun “Gizarte-Ekintzarako Eredua” eraikiz

Caritasen ekintzaren oinarriak erakundearen izaera dira, gure identitatearen ardatz-elementuak. Honela, argia ematen dute, zein eremutan esku hartu eta gure ekintza nola garatu behar dugun jakiteko. Honela, “izatea” geurea den egiteko estilo batean gauzatzen da, “zeregin” batean eta aukera batzuetan.

Gauzak egiteko geure modu horretan, oinarri guztiak islatu behar dira. Ez dira elementu isolatuak, elkarri ematen baitiote sostengua: “izatea”, “zeregina” eta “egitea”.

6.1. POTENTZIALTASUN ETA GAITASUNETATIK LAN EGITEN

Gure ekintzaren ardatza pertsona da, pobretutakoek batez ere, baztertutakoak eta gizarteak atenditzen ez dituenak. Pertsona gure esku-hartzearen erdigunean jartzen badugu, pertsona den horretatik abiatzen gara, eta inoiz ez pertsona ez denetik.

Uste sendo bat dugu abiapuntu: pertsona bakoitzak bere duintasuna dauka, bera dagoen egoera edozein dela ere. Gainera, pertsona modu integralean ulertzen dugu.

Uste sendo honetan oinarrituta, potentzialtasun eta gaitasunetatik lan egiteko aukera egiten dugu, laguntasun-zentzuz.

Laguntasun-zentzuz jokatzeko badugu, arreta, batez ere, bideetan jarri beharko dugu, eta ez hainbeste helmugetan. Laguntasuna ematean, heziketa-prozesu batean sartzen da: bertan, sustatu egiten da, ahalbidetu, dinamizatu, lagundu, potentziatu, baloratu,... baina ez da ordezkatzeko, ez menpean jartzen, ez menpeko bihurtzen, ez da nabarmentzen jakiten edo edukitzen dena... Jokatzeko modu honetatik, ekintza subjektuen arteko elkarrizketa bezala hartzen dugu, eta ez subjektu batek objektu baten gainean ekintzak egiten dituen esku-hartze bezala; ez dago aktiboa den parte bat, eta beste bat pasiboa dena: subjektuen arteko egiak harremana baita, eta, harreman horretan, denborak eta topaketak erraztu egiten digute pertsona egiten joatea.

Jainkoak bere erritmoa du, beti prest bakoitzari bere erritmoan laguntzeko. Horregatik, bazterketa-baldintzek, Jainkoaren aurrean, pertsonari ez diote bere pertsona-izaera kentzen. Horrela, esan dezakegu pertsonen ibilbideak lagundutako bide batean zehar egiten direla. Honek esan nahi du gure ekintza, planteamendu, proposamen eta proiektuetan desagertu egin behar dela puntuala dena, berehalakoa dena, neurtua dena, erantzunen inpartzialtasuna... prozesuei bide emateko.

Gizarte-ekintzarako gure ereduak bere zentzua aurkitu nahi du gizaki bakoitzak duen izatearen eta pertsonalizazioaren potentzialtasuna bermatzen.

Jainkoa gizakiarekin beti funtsezkoan aurkitzen da, duintasun pertsonalean. Jainkoak beti egiten du gizakiaren aldeko apustua, bere egoera edozein dela ere. Arreta jar dezagun Joanen ebanjelioan kontatzen zaigun Jesus eta Maria Magdalenaren arteko topaketan ²⁷.

Maria Magdalenak Jesusengan bakean bizitza ahalbidetzen zion pertsona bakarra aurkitu zuen, lasai bizitzeko aukera ematen zion bakarra. Jesus ez dagoenean, bakardade sakonak eta etsipen handiak kolpatzen dute. Berak maite zuen norbait galdu du, eta, aldi berean, bere bizitzaren zentzua galdu du. Maria Magdalenak, min eta larritasun handiz, negar egiten du, Jesus aurkitzen ez duelako. Jesus bera da galdetzen diona zergatik egiten duen negar, baina, berak, bere itsualdian, ezin du ikusi.

Jesusek, Maria Magdalenarekin aurkitzen den moduz baliatuz, gonbidatu egiten gaitu beste pertsonekin horrelako topaketa eduki dezagun. Jesusek emakumeak bere amorru guztia hustu arte itxaroten du, ez da indarka sartzen, ez du urratzen emakumea bizitzen ari den errealitatea. Jesusek egiten duen bakarra da beraren izenaz deitzea, eta bera aurkitzen den moduan maitatzea, sinesgogor eta negarrez.

Kontakizun hau ispilu izan ahal zaigu, guk ikus dezagun gure elkarriketek pertsona duten oinarri, ezer transmititzen dugun edo kalte egiten ote dugun.

Jesusen hitzak sendatu egiten du; Maria Magdalenari hau esango balio bezala da: "norbait zara eta zure ondoan nago, zu laguntzeko prest nago". Horrela, laguntza eta segurtasuna eskaintzen du.

Maria Magdalena, Jesus dela konturatuta, ilusionatu egiten da eta harrapatu nahi du, ez du berriro Bera gabe egon nahi; baina Jesusek ez

²⁷ Ikusi Jn 20,11-28

du mendekotasunik sortu nahi, ez ukitzeko esaten dio, eta komunitatera bidaltzen du.

Jesus ez da intimismoan geratzen, baizik eta gaitu egiten du Maria Magdalena barrura begiratzeari utzi diezaion, ilunpetik atera eta geldituta gera ez dadin; baina, beti, Jesusekiko topaketak berari egin dion ekarpenetik abiatuta.

Gure harremanek honelakoak izan behar dute: topaketa, konpromiso aktiboa pertsona konkretuekin, beraien egoera errealetatik. Konfiantza izanda eta jakinda ibilaldia ibilbide osoan lagunduz egiten dela, eta bidea egiten duenak behar duen denboran. Laguntasunerako gaitasuna da topaketaren kalitatea definitzen duena.

Topaketa eta laguntasuna beste pertsonaren duintasuna aitortzeko ezinbesteko baldintza dira, baita berorren adierazpidea ere. Pertsonalizazio-prozesuan pertsoneri laguntasuna ematen dienak iradoki egiten du, adoretu, entzun, exijitu, “parte hartzen du eta bizitza partekatzen du”, erreferentzia hurbila da.

Topaketarako, konfiantza eduki behar da pertsonarengan, eta laguntasuna eman behar zaio pertsonalizazio-prozesuan, lagundutako pertsonaren potentzialtasunetatik beraietatik abiatuta eraikitzen dena.

6.2. EKINTZA ESANGURATSUAK LEHENESTEN

Caritasen ekintzarako Konfederazioaren esparru-dokumentuak adierazten duenez, gure ekintzetan garrantzitsuena erreferentzia-puntu bihurtzea da, besteak abian jartzera gonbidatzen dituzten bide irekiak. Honela, garatu egiten da ekintzen esangura-dimentsioa.

Aurrera egin nahi dugu ekintza esanguratsuak eraikitzen: ekintza hauetan, sinpleak eta egunerokoak izan arren, gure oinarriak eta gure izaera definitzen dituzten ezaugarriak islatu behar dira. Gure ekintzei darian nolakotasunak berauek identifikatu eta definitu egiten ditu. Kalitate horrek funtsezko bi erreferente izan behar ditu: batetik, pertsonaren duintasuna, eta, bestetik, balio alternatiboak, gizartea eraldatzeko proiektu globalaren barruan. Esanguratsuak izanik, askapena aldarrikatzen dute, gure indarretatik haragoko utopiara bideratzen gaituzte, Erreinuaren zeinu eta lanabes dira.

Gure ekintzek pertsonalizazio-prozesuak ekarri behar dituzte berekin, indarrean dagoena ez bezalako logikak araututako komunitatea eta gizartea eraikitzeko prozesuak. Gure errealitatean, nabarmendu egin behar dugu posible direla bestelako mundua eta bestelako harremanak. Ekintza horiek egiaztatu egin behar dute oraindik egin gabea dena bideragarria dela. Gure inguruan erreal bihurtu behar ditugu Jesusen

hitzak: “itsuek ikusi egiten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten dute, hildakoak piztu egiten dira eta behartsuei berriona ematen zaie” ²⁸.

Gure ekintzak esanguratsuak izan daitezten, eraginkorrak izan behar dugu pobretutako eta baztertutako pertsonen zerbitzua ematean.

Jesusen mirariak Jainkoaren Erreinuaren adierazgarri ziren eta, jakina, balio handikoak zitzaizkien beraietatik onura zuzena ateratzen zutenei; gure ekintzek beren sinbologia osoa proiektatu behar dute zerbitzu konkretu bakoitzean.

Víctor Renes-ek honela dio: *“Gure ekintzek motibazio argiak eduki behar dituzte, eta beraietan nabarmena izan behar du balio alternatiboen eraginak, ekintza horien esangura aditzera eman ahal izateko: hau da, argi islatu behar da balio ebanjelikoetan oinarritutako gizartea eraiki nahi dugula. Eta, ekintza guztiek izan behar dute “esanguratsuak”, hau da, ez dute amaitu behar ekintza bera gauzatu, baizik eta transzendentzia dute eta asmo instrumentaletik harago doaz; pertsonalizazio-, humanizazio- eta askapen-prozesuak adierazten dituzte”* ²⁹.

Caritasen oinarriak eta gure praktikak koherenteak izanez bermatuko dugu gure egintzaren esangura-izaera.

6.3. ELIZ ELKARTEAREN EKINTZA BULTZATZEN

Elizaren eginkizuna belaunaldi berri bakoitzari eta mundu osoari Jesukristoren Ebanjelioa ezagutzera ematea da. Ebanjelizatzea da gure izaeraren funtsa, Erreinuaren Berriona aldarrikatzea, Erreinu hori dagoeneko hemen dagoela baina areagotu egin nahi duela bere eragin humanizatzailea. *“Ebanjelizatzea Elizaren dohatasuna eta bokazioa da, bere identitaterik sakonena”* ³⁰.

Ebanjelizatzea ez da bakarrik Jainkoaren Hitza aldarrikatzea; horrekin batera, gure lekukotzarekin ebanjelizatzen dugu, gure bizimodu pertsonal eta komunitarioaren bidez adierazten dugunean sinetsi egiten dugula eta Jesusen estiloan jokatzeko dugula. Horregatik, komunitate ebanjelizatzaileak arreta jartzen die bai errukizko ekintzei bai ekintza horiei zentzua ematen dieten hitzei.

Elizaren barne-izaera hiru eginkizunetan adierazten da: Jainkoaren Hitza aldarrikatzea, Sakramentuen ospakizuna eta karitatearen zerbitzua.

²⁸ Mt 11,5.

²⁹ Víctor Renes. “Las acciones significativas”. Corintios XIII, 93 zk., 2000.

³⁰ Pablo VI.a Evangelii Nuntiandi. Entziklika 1975

Eginkizun hauek elkar inplikatzeko dute eta ezin dira bata bestetik bereizi.

Karitatezko ekintzaren subjektua komunitate osoa da; beraz, Caritasek, bere ekintzetan, bideratu egin behar du egilea bera bakarrik ez izatea, Eliza osoa baizik, agentea kristau-komunitatea baita. Baieztapen hau errealitate izatea Caritas gainditzen duen erronka da, Eliza osoaren erronka bihurtzen baita. Izan ere, Juan Pablo II.ak Eliza adoretzen zuen “karitatearen irudikatze berriaren” eta “Ebanjelizazio berriaren” bila aritu zedin, pobretutako pertsonetarako konpromisoa garatuz.

“Eliza ezin da inoiz karitatea egitetik salbuetsita sentitu, sinestunen jarduera antolatu moduan; eta, bestetik, egoera edozein dela ere, beti behar izango da kristau bakoitzaren karitate indibiduala, zeren eta gizakia, justiziatik harago, maitasunaren beharra baitu eta beti izango baitu”³¹.

Caritas erakundeak Elizaren jarduera karitatezkoa eta soziala artikulatu, koordinatu eta sustatzen du. Jakin badakigu antolamendu onak elkartasunaren balioa potentziazten duela, eta gure asmo onak argitzen eta zehazten laguntzen duela. Zerbitzu hobea emateko antolatzen gara; antolamendua, berez, ez da helburua.

Ondorioz, geure burua bidalitako pertsonatzat hartzen joan behar dugu. Bidaliak gara, beste errealitate batzuen bozeramale izan gaitezen, ez protagonista: Caritasek onartutako proposamenak geure egiteko kapaz izan behar dugu, proposamen horiek bideratu, sustatu eta laguntzeko.

Kristau-komunitateak justiziaren aldeko lanean parte hartzea sustatzea, Caritasen dugun kristau-konpromisoaren parte da. Eginkizun hau komunitatea animatzera dago bideratuta, ez ordezkatzera, edo ekimenak abian jartzera komunitatea bera alde batera utzita. Proiektuen agente bultzatzailea komunitatea bada, Caritasek bere laguntza eman behar du proiektu hauek gara daitezen. Boluntariora aktiboa eta erakundeetan, komunitatean eta inguruan parte hartzen duena sustatzea giza-baliabideak kudeatzea ez ezik, esku-hartze soziala ere bada.

Komunitate osoari egiten zaio Ebanjelioa bizitzeko deia. Honek bultzatu egiten gaitu presentzia doakoa eta aktiboa eskatzera gure

³¹ Deus Caritas est 29

gizarteko egoera mingarri eta pobreenetan parte hartzeko eta beraiekin konprometitzeko erantzukizuna hartzeko kapaz diren pertsoneri.

6.4. EKINTZA INTEGRAL ETA SISTEMIKO BATETIK

Bazterketa-prozesuek, sorrera gora behera, azkenean pertsoneri eta lurraldeei eragiten diete; dimentsio pertsonala, komunitarioa eta estrukturala elkarlotuta daude. Horregatik, prozesu honen jakitun, harremanak eta koordinazioak bultzatzen ditugu, eremu lokaletik hasita (hor inplikazio pertsonaletik parte hartzen dugularik) eremu globalera (politika handiei eragin eta presioa egiten diegularik).

Karitatearen dimentsio unibertsalak, eremu lokalean, nazioarteko lankidetzako ekintzak egitera eraman behar gaitu, nazioarteko harreman bidezkoagoak eraikitzeko asmoz.

Beraz, ekintza bakoitza, aldi berean, pertsonaren sustapenera eta kausak aldatzera bideratzen da, salaketa eta sentsibilizazioa barne harturik, baita kristau-komunitatearekiko eta lurraldeko agenteekiko lotura ere... Hori dela eta, garrantzitsua da arreta pertsonaren dimentsio sozialean zentratzea, familia-, talde-, komunitate- eta lurralde- zentzuan, zeharkako eran garatuz eta bazterketa-faktoreetan eraginez.

Caritasen ekintzak humano denaren hiru espazio handiak hartzen ditu. Ez litzateke ekintza egokia izango pertsona konkretuekin lan egingo ez bagenu, baina ezta ere pertsona horiek partaide diren komunitateekin egingo ez bagenu. Era berean, gure ekintzak lagundu egin behar du egiturak eta prozesu sozialak aldatzen.

Gure ereduak ekintza integralaren aukera egiten du, badakigulako parte baten gaineko ekintzak osotasunari eragiten diola, bai pertsona osoari, bai komunitate osoari, baita gizarteen eta beraien egituren osotasunari ere. Beraz, Caritasen gizarte-ekintza aldaketa integralera bideratzen da, dimentsio guztiak barne hartuta: pertsoneri laguntasuna emanez, komunitateak animatuz eta salaketa profetikoa eginez.

Laburbilduz, deitu gaituenaren urratsei jarraitu nahi diegu, “beste pertsonaren” alboan jarri, berdintasun mailan. Horregatik, gizarte-ekintzarako eredutik, gure jarduerari topaketa-, denbora- eta utopia-zentzua eman nahi diegu:

- Laguntasun-zentzua duen **topaketa**, pertsonen prozesua ahalbidetzen duena: beraien potentzialtasunak sustatzen ditu eta oinarriko konfiantza sorrarazten du beraiengan.
- Humanizatzen duen **denbora**, pertsonarengandik abiatzen dena, bere bizi-egoeratik, bere prozesutik.

7 - Bibliografia

BENEDICTO XVI. *“Deus caritas est”* Entziklika. Madrid: Ediciones Encuentro, 2006.

CARITAS BIZKAIA. Nortzuk gara? Hona gure nortasunaren ezaugarri batzuk. Bilbo: Bizkaiko Caritas, 2000.

CARITAS BIZKAIA. *Comunidad de testigos en el amor y la justicia*. Cáritas Bizkaia con un corazón renovado. Bilbo: Bizkaiko Caritas, 2008.

CARITAS BIZKAIA. *Bizkaiko Caritasen Plan Estrategikoa. 2006 -2010*. Bilbo: Bizkaiko Caritas, 2006.

CARITAS BIZKAIA. *Guztion Proiektua*. Bilbo: Bizkaiko Caritas, 1999.

CARITAS BIZKAIA. *5 erronka, gero eta “Caritas” gehiago izan gaitezen*. Bilbo: Bizkaiko Caritas, 2001.

BILBOKO ELIZBARRUTIKOA. *Nola jaio daiteke norbait, jadanik zaharra izanik?*. Bilbo: Bilboko Elizbarrutia, 2000.

GARCÍA ROCA, Joaquín. Relatos, metáforas y dilemas para transformar las exclusiones. Publicado en: Vidal Fernández, Fernando (dir). V informe FUHEM de políticas sociales: La exclusión social y el estado del bienestar en España. Madrid: FUHEM, 2006.

RENES, Víctor. *Las acciones significativas*. CORINTIOS XIII, nº 93. 2000. pp.253 ss.

VIGILA, José M^a (ed). *La opción por los pobres*. Santander: Sal Terrae, Presencia teológica 64.,. 1991.

CÁRITAS ESPAÑOLA. *Modelo de Acción Social*. Madrid: Confederación de Cáritas Española, 2009.